

AITORPENA
Egoitz Tolosa
Andoain, 17 urte

Nire buruaren gainean izarren sugarrak harturik daude zero itogarri, kalaberiko, bioleta koloredun batean. Gutaz gure txatarra bakarrik geratuko da, eta datozen belaunaldien barre gorra, isekazko barrea. Txatarreroa gorputz xahar honen bila etorri aurretik iragana datorkit burura. Ederra da joandako gertakariak gogoratzea, nahiz eta askotan ahazten saiatzen garen, baina hori zahartzarok dakarkigun altxorra da.

1939 ingurua zela uste dut, baina, ez egin agure honen memoriari kasu handirik. Alemaniarrek Polonia inguratua zuten eta Hitler-en zakur amorratuak hasiak ziren nire herriko kaleetan barrena tanke blindatuetan paseatzen. Sudurraren azpian bibotetxo bat zeraman heriotzaren mamua gure kaleetan barrena zebilen. Egoera hura urtebetez edo luzatu zen 1940an preso hartu ninduten arte, emaztea eta semeak bakarrik utzita, beste milaka poloniar bezala. Hemen egin ziguten gure lehen lapurreta, askatasuna ostu ziguten. Bidaia gogorra izan zen, baina gure gorputzak elkarren gainean pilaturik zekartzan kamioitik jaitsi ginenean ikusitako kartelak, Auschwitz zioenak, ez zuen gure zama arindu. Barnean, oso barnean generaman zama. Burdinazko sare arantzadun haien kontra jarri gintuzten ilara osatuz. Bigarren lapurreta

hemen egin ziguten, gainean genuen guztia dominaz jositako uniforme dotorea zeraman gizon ile horiari eman genion. "Arraza goreneko" izaki bat gertutik ikusten nuen lehen aldia zen. Biluzturik, gure zeldetara eraman gintuzten. Uste ez banuen ere, han, heriotza guztiaren artean egongo zen bizia emango zidana.

Goizeko lehen argi izpiek maitekiro esnatu gintuzten. Hesi, sare eta goardien begirada zorrotzak saihestuz pasa ziren izpiek. Ohea metro bat luzeko ohol bik osatzen zuten. Honen azpian erdoildutako pixontzia zegoen, karearen zuriak estalirik. Gure aurretik egon zirenek sabai eta hormak marrazkiz betetzeko hartu zituzten lanen fruitua geuk jaso genuen. Marrazki haietan azaltzen zena ikusteak bihotza estutu zidan. Oraindik ere hildakoen oihuak hormetan talka egin eta oihartzun garbia sortzen zuten.

Oihuak, ulertzen ez nituen oihuak. Soldadu bat sartu eta bere eskopetaz kolpeka hasi zitzaidan. Orduan ezagutu nuen bera, Maximiliano Kolbe, nire eta fusil haren egurrezko kulataren artean jarri zen apaiza. Kanpora eraman gintuzten. Hirugarren lapurketa, gure duintasuna lapurtu ziguten. Ofizial bat gure aurrean zebilen, alde batetik bestera oinez. Noizean behin gutarikoren bat hatz garbi eta lirain batez erakusten zuen, eta bere laguntzaileek aurrera ateratzen zuten aukeraturako gizasemea. Hamar bat inguruko taldea osatu eta gure parez-pare jarri zituzten, soinu ikaragarri batek gogortzen gintuen bitartean, odolez-

taturik erortzen ikusteko. Hori zen gure lehen ikasgaia; “hemen ez zarete ezer, berdin dio hilik edo bizirik egotea, ez baituzue denbora gehiegi pasatuko hemen”. Gero lanera bidali gintuzten soroetara. 14 ordu luzez egiten genuen lan, erroparik gabe, janaririk gabe, atsedetik gabe. Itzultzean platerkada bat janari izaten genuen zain (ez dakit zerriek ere jan nahiko luketen hura, baina ez genuen besterik), eta gure barrakoietara ondoren. Horrela, eguna joan eta eguna etorri, animalien pare, gizontasuna eta izatea galdurik (baina gure erroek hor zirauten) bizi irauteko ahaleginak egiten genituen. Beti hatz hark noiz aukeratuko beldurrez. Han ez nuen ezer, ez nuen lagunik, eta lagun bat egin orduko galdu egiten nuen. Hala Maximilianen lagun egiten hasi nintzen, nire barrakoikidea zelako batik bat. Bere istorioa kontatu zidan, bere misio, konbentu, irrati programa eta beste ez dakit zenbat gauza gehiagoz hitzegin zuen apaiz frantziskotar hark. Gizon handia zen, eta gure arteko harremana ez zen txarra.

Oraindik gogoan dut Maximilianek ematen zigun indarra. Bera ikustea aurrera egiteko, burua ez galtzeko, oso lagungarri zitzaigun. Beti zuen zereginen bat, egin zezakeen gutxiaren artean. Bera zen gure euskarria, batez ere lehen sei hila-beteetan. Baina neguaren gogorrek okertu zuen ordurarte zurruna izan zen pago osasuntsua. Neguan ere soroetara bidaltzen gintuzten ohitura bilakatu zen bezala. Ez genuen berokirik, ez genuen zapatarik, ez jertserik, ezta janaririk ere.

Gu, aitzurra eta erropa zahar zulatuak izaten ginen goizero ekaitz eta izotzezko haize erauntsien lagun egin zen soroaren aurka. Garbi datorkit burura, eta oraindik nire eskuetan ditut frogak, nola ari ginen Maximilian eta biok elkarrekin lanean. Supituki eztulak bere gorputza uzkuritu eta sekulan inor ikusi ez dudan bezala zigortzen hasi zen. Eztul bakoitzarekin odol parrastada botatzen zuen Maximilianek, eta lurrera jausi zen. Laguntza eskatu nien goardiei, baina ez zidaten kasurik egin nahi izan, Maximilianek bereak eta bi ikusi zituen artean ez behintzat. Ondoren kontzentrazio kanpoko eritetxera eraman zuten. Egun pare batean ez genuen bere berririk izan.

Zarata batek iratzarri ninduen. Maximilian barrakoian zen berriz. Inor konturatu gabe ekarri zuten. Berarengana hurbildu eta aurpegian zerman maskara ikusi nuen bezain laister nigandik piska bat urrundu zen. Tuberkulosia omen zuen, eta ez nolana hikoia. Handik aurrera ez zen bera izan, bizitasuna falta zuen, baina badakigu gaisotasunak kristaurik zintzoena ere akitzen ikasita jaiotzen direla, eta are gehiago geunden tokian egonda. Horrela hasi genuen 1941. urtea, eta baita jarraitu ere. Berak ez zuen hobera jo, gure egoeraren ildo beretik.

Iritsi zen udaberria, baina ez zigun lorerik ekarri, ez zigun txorien kantu alairik ekarri, heriotza eta beldurra baizik. Nirekin batera preso hartu zituzten gehienak hilik zeuden, batzuk afusilatua, beste batzuk gela batean ez ur eta ez janaririk zute-

la gosez hil arteraino giltzaperatuak. Gauero amesgaiztoak izaten nituen, hildakoen aurpegiak zetozkidan burura eta beraien artean neronena. Banekien nire garaia ere iritsiko zela. Jendeak ez zuen denbora gehiegi irauten han: batzuk iritsi eta lehen ordu erdian ateratzen ziren handik, hilik. Beste batzuk aste pare batez edo sufritzen zuten hil aurretik. Zortea zuenak sei hilabete irauten zuen, eta ia inor ez zen hartatik libratzen. Itxaropena galduta nengoen jada, baina zertxobait alaitzen ninduten Maximilianoren hitzek. Berak ez zuen amore ematen, fedea eta itxaropenak bizirik mantentzen zuten gure apaiz frantziskotarra. Eskerrak berari! Maximilian gero eta hobeto zegoen. Gaisotasunak urratu ezinezko fedez indartutako zapiarekin egin zuen topo oraingoan. Bizirik jarraitzen genuen, eta ez zen gutxi.

Udaberrian gogotsu joaten ginen soroetara, zelaien berdeak Auschwitzen hormen kolore garratza ahaztarazten baitzigun, eta eguzkiak gure izerdi tanta iheslariak atzeman nahiz edo gure sorbalda biluziak lastantzen zituen. Han aritzen ginen, aitzurraz lurraren azala ebakitzen, bere erraien bila jardungo bagenu bezala. Nekeak gure gorputz zimurrak hartu arren han jarraituko genukeen denek, berriz ere zoritxarreko pareta haien artera itzuli beharrean. Zoritxarrerako, lan orduak murriztu egin ziren, aurreko urtean egindakoaren fruituak hasi baitziren.

Burua galtzen hasiak ginen. Batzuetan egun osoa barrakoietan ematen genuen eta izugarritzko

atsekabeak hartzen gintuen. Horietako egun batean, afaldu eta denak lotan zeudela (edo ia denak), nire bi oholezko ohean eserita nengoen, leihotik kanpora begira. Nire begirada ortzira zuzendua zegoen, eta nire hitz eta errezoek ere norabide bera zeramaten, norbaitek entzun zitzan. Sarean zehar pasatzen ziren ilargi izpiek nire zulatutako erropetan umeez egingo lituzketen antzerako marrazkiak egiten zituzten, jostalari. Noiz edo noiz dorreko goardiaren linterna indartsuak izpi garbi zuriei kolore zikin eta horizta ematen zien une hoietan ere bakerik ez nuen. Ilargiari hizketan ari nintzaiola barrakoiaren beste aldean eserita zegoen itzal bat ikusi nuen. Hasiera batean ez nekien gizakiak ala izpirituren batek sortua zen, baina hurreratu eta izpiritua Maximilian zela ikusi nuen, gutun bat idazten ari zela. Bere amarentzat zen gutuna, eta ez dut sekula ahaztuko nola esaten zion ez jarraitzeko idazten, ez zekiela zenbat denbora gehiago iraungo zuen eta. “Gabon” isil eta dardarati batez bere gutunarekin aurrez-aurre utzi eta lotara joan nintzen. Hurrengo egunean soroe-tara irten ginen. Uda gainean zen.

Iritsi zen bada uda ere, eguzki bero eta gupidagabeari besarkaturik. Egunak luze egiten zitzaizkigun. Argi ordu gehiago genituen, lan orduak ere gehitu egin ziren. Udaberrian gure bizkarrak leun eta gozotasunez laztantzen zituen eguzkiak orain azala xigortu beharrean zigortu egiten gintuen, zerbaiten mendekua balitz bezala. Edateko ematen ziguten ura, zikina izateaz gain ez zen eztarri guz-

tiak freskatzera iristen eta soroak ez zuen barkatzen. Errepideak eta ureztatze sistemak ezartzeko erretenak egiten ari ginen, nolabait, eta gure gogoz kontra bazen ere, sudur azpian bibotetxo bat zeraman heriotzaren mamuari hedatzeko aukerak ematen. Maximilianek, ia guztiz zuzpurturik, gure artean itxaropena zabaltzen jarraitzen zuen egunero, eta ez zuen gure askatasun ametsa hiltzen uzten.

Goiz batean, itxuraz beti bezalako egun bat izango zen horietako batean, iratzarri eta eguzkiarekin batera eraman gintuzten sorora. 1941eko uztailaren 30a zen. Denak lasai zirudien, baina bazen halako zera arraro bat gure artean. Bezperan zurrumurru ugari izan ziren barrakoian eta nire barnean beldurra sustatu zuten. Lanari ekin genion aitzur eta gainontzeko lan-tresnekin zoru gogorra urratu eta kolpatuaz. Horrela aritu ginen eguerdi alderarte. Gogor ari nintzen lanean, egarriturik, eskuak odoldurik. Kopetan behera irristaka zetozen izerdi tantak lehortzeko eskua pasatzen nuen bakoitzean, gorriak ikusten nituen. Zaurietan horrelakoxe gauzak egiten ditu izerdiak. Nire bizkarra, lanaren zamak okertua, kexuka hasia zen, baina ez nuen bere haserrealdirik entzuteko betarik. Eguzkiak sua jaurtikitzen zigun eta handik hanka egiteko bide bakarra lana azkar amaitzea zen.

Halako batean norbait lanari utzi eta ur bila zihoala ikusi nuen. Goardiarengana gerturatu eta honek kazokada bat ur eman zion. Hasi zen gure gizona ura edaten. Bat-batean, kazoarekin goardia

jo eta korrika abiatu zen gertuen zegoen basora. Izugarrizko eromena izan ziren ondorengo hamar minutuak. Soldadu guztiak garrasika eta biraoka ari ziren, zakurrak (lau nahiz bi hankakoak) atzetik zituela korrika zihoan gizonari tiroka. Leherketen burrundadak nire belarriak gortu zituen. Denak gizon hari begira geunden, batzuk ihes egin zezan Jainkoari eskatuz, eta besteak bertan hiltzeko amorru biziz. Bistatik galdu zutenean bilaketa patruilak bidali eta gu barrakoietara itzuli ginen. Okerrena espero genuen.

Hesiaren aurrean ilaran geunden berriz ere eta ofizial haserretu bat zebilen gure aurrean begiak atera beharrean oihuka. Gizon hark ihes egiteak ez zion onik egin eta guk ordaindu beharko genituen haren balentriak. Bere hatza luzatu eta hasi zen heriotza zozketa, zigortuak izango zirenen aukeraketa. Hatzak erakutsitakoan aurpegia ikusteak soilik odola izoztu zidan. Baina hatz tinko hura niri begira jarri zuenean burmuina paralizatu eta, nire hankak indarra galduta, lurrera erortzeko zorian egon nintzen. Etorri zen soldadua ni ilaratik ateratzera eta jarraitu egin nion, horrek nolabait eromen hartatik askatuko ninduelakoan. Gauza bakarrik ematen zidan pena: nire emazte eta semeak bakarrik uzteak, eta halaxe esan zuen, uste gabeen nire erraietatik atera zen hasperen-erreguak.

Galdua nengoen, baina orduan gertatu zen horrenbeste urtez ezkutuan izan dudan hau: Maximilianek pauso bat aurrera eman eta zera esan zion ofizialari: "Horietariko baten truk har

nazazun nahi nuke, ni apaiz katolikoa naiz eta ez dut, ez emazte, ez seme alabarik". Gure harridura aurpegiak inoiz izan den bertsorik esanguratsuenak baino gehiago balio zuen. Ofizialak onartu eta zeinen trukean joan nahi zuen galdetu zion, Maximilianek "horren truke" esan zuen zartaduraz beteriko hatzamarraz ni erakutsiz. Barnean izugarrizko nahastea nuen, ez nuen ezer ulertzen, ez nekien hura guztia egia zen ala eguzkiaren grinak sorturiko aluzinazioa, baina aluzinazioa errealitate bihurtu zen berriz ere nire ohean etzan nintzen. Maximilianek nire bizia salbatu zuen, baina berearen ordainetan, janari eta edari gabeko isolamenduan ezarri zituzten.

Ixilik geunden. Bagenekien gutariko hamar goseak hiltzen ari zirela. Ez genuen solaserako gogorik. Erabat jota nengoen. Ni nintzen lizunez betetako gela ilun batean, biluzik eta ur edo janaririk gabe egon behar zuena, eta zer egiten nuen hemen? Ametsetako hilen arimak egunez ikusten nituen, eta beraiei elkaturik bizirik zeuden gure lagunak. Ondorengo egunak izugarriak izan ziren. Denek genekien gure lagunak ez zutela askoz gehiago iraungo. Inork esan ez bazigun ere, pare bat aste pasa ondoren gertatu zena somatu genuen. Banekien Kolbe hil zela; nire barruak esaten zidan. Jada ez nuen hildakoen oihurik entzuten; Maximilian Kolberi ongietorria ematera joanak ziren. Orduan lapurtu zidaten geratzen zitza-dian gauza bakarra, arima.

Hilabete batzuen buruan aske irten nintzen

infernu hartatik. Nire herrira itzuli nintzen, familiakoengana, baina ezer ez zen berdin. Nire arima han geratu zen, pareta ilun haien arteko sufrimenduaren lekuko izatera kondenaturik. Piskanaka nire bizitza berreraiki eta orain hemen nago.

Auschwitz-ek egin zizkidan zauriak oraindik ere odola isurtzen dute, bertan hil zirenengatik eta batez ere niri bizia oparitu zidan harengatik. Gerra amaitu ostean Maximilian Kolberen heriotzaren berri izan genuen. 1941eko abuztuak 14ean hil zen, hamabost egun urik eta janik gabeko isolamendua pairatu ondoren bere sufrimenduarekin amaitu zuen fenolez betetako heriotza-liztor bilakatu zen xiringaren ziztadarekin.

Hau guztia ez dut oraino aitortu, iragana ahalik eta urrunen mantendu nahi nuelako. Baina orain, agure naizenez eta denbora gehiegi ez dudanez, egitea erabaki dut. Ez dut hiltzeko beldurrik bai baitakit, han, nonbaitean, Maximilian begira dagoela. Berari eskerrak emateko irrikaz nago. Eman zidan aukerak biziaren benetako balioa erakutsi dit. Zergatik meziprezatzen ote dugu horrela?

Nire buruaren gainean izarrak sugarrek harturik daude zero itogarri, kalaberiko, bioleta koloredun batean. Gutaz gure txatarra bakarrik geratuko da, eta datozen belaunaldien barre gorra, isekazko barrea.